

**2023KO EKAINAREN 17AN  
EGINDAKO EZOHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

*UDALBATZAR BERRIAREN ERAKETA BILERA, 2023EKO MAIATZAREN 28  
DATAKO UDAL HAUTESKUNDEETATIK ERATORRIA*

**BERTARATUAK:**

1. Oihana Amundarain Zubillaga
2. Maite Bizkarrondo Arzallus
3. Juan Ramon Gurrutxaga Lasa
4. Olaia Garaioa Moriones
5. Pello Iriarte Irisarri

Elduaingo Udaleko Areto nagusian, aurrez egindako deira, 2023ko ekainaren 17ko goizeko hamarrak puntuan direnean, 2023ko maiatzaren 28ko hauteskundeetan hautatuak gertatu ziren aipatutakoak batzartu dira.

Bertan aurkitzen da eta ekitaldiaren fede ematen du Udalaren idazkari-kontuhartzaileak den Maria Pilar Garmendia Miguel.

**AZTERGAIEN ZERRENDA:**

**BAKARRA.- UDALBATZA BERRIAREN ERAKETA ETA ALKATEAREN  
AUKERAKETA.**

Idazkariak eraketa bilera honen prozedura azaltzen du eta eman beharreko pausoak laburbiltzen ditu.

Batzarraldiari adierazten zaio honen helburua Udalaren eraketa dela, Hauteskunde orokorretako Lege Organikoaren 195.1 artikulua eta Udal Korporazioetako Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Erregelamenduaren 37.1 artikulua agindutakoa betez, ondoko gai zerrendaren arabera:

- Adineko Mahaia osatzea.
- Kredentzialen egiaztatzea.
- Zinegotzien zin egin edo hitz ematea.
- Korporazioa osatu izanaren aitortpena.
- Alkatearen hautaketa.
- Alkatearen zin edo hitz ematea eta jabetza hartzea.

Hauteskunde Erregimena arautzen duen, ekainaren 19ko 5/85 Lege Organikoak xedatutakoaren arabera, 2023ko maiatzaren 28ko hauteskunde egunetik zenbatzen hasitako hogeigarren egun honetan Udalbatza berria eratzeko bilera deialdia egingen da.



Bildutako hautatuak, eratu den Udalbatzako gehiengo osoa izanik, hau da legez eta egitez Udalbatzaren gehiengo osoa direlako, eraketa bilkura baliozkoa da.

**LEHENENGOA:**

**ADINEKO MAHAIA OSATZEA:**

Adineko mahaia egintza honetan daudenen arteko zinegotzi gazteenak eta edadetuenak osatzen dute, udaletxeko Idazkariarekin batera.

Zinegotzi zaharrenak, mahai honen lehendakaritza izango du.

Hautagaien urtebetetze egunen arabera, mahaiaren osaketa jarraikoa gertatzen da:

**LEHENDAKARIA:** Pello Iriarte Irisarri Jauna, zinegotzirik zaharrena delako.

**MAHAIKIDEA:** Oihana Amundarain Zubillaga Andrea, zinegotzirik gazteena delako.

**IDAZKARIA:** Maria Pilar Garmendia Miguel, udalaren Idazkaria delako.

**BIGARRENA:**

**KREDENTZIALEN EGIAZTATZEA**

Argibide hauei jarraiki mahaiak zinegotzien hautatu-egiaztagirak (kredentzialak) Tokiko Hauteskunde Batzordeak luzatutakoak, aztertzen dituzte.

Denak baliozkoak direlakoan onartu egiten dira.

Gero, hautatuek Udalaren Idazkaritza Orokorrean utzitako bateraezintasun eta ezgaitasun zioen deklarazio agiriak eta ondare ondasun eta jardueren gaineko deklarazio agiriak aztertzen dira eta da inongo oztoporik aurkitzen.

**HIRUGARRENA:**

**ZINEGOTZIEN ZIN EDO HITZ EMATEA**

Kargua hartu aurretik ordea, udal hautetsiek Konstituzioaren zina edo hitzematea egin behar dute.

Jurisprudentzia honela agertu da horren inguruan. Auzitegi Konstituzionalaren (2. Sala) 8/1985 Sententziak, urtarrilaren 25ekoak, «herri subiranoaren aurrean Zinegotzi karguaren betebeharrak fideltasun osoz betetzea» agindu zuen Zinegotziaren aurrean, Konstituzionalak eskatutako babesa eman zion, Udaleko zinegotzi karguaren jabetza hartzea aitortuz.

Auzitegi Konstituzionalak (Osoko Bilkura) ekainaren 21eko 119/1990 Sententzian adierazi zuenez, «Legeak hala behartuta, bai, hitzematzen dut» formula erabili zuten Zinegotziek Zinegotzi izaera osoa hartu zuten Konstituzioari men egiteko agindua formula horren bidez eginda.

Hautagai guztiak zin egiten dute aipatutako formula bat edo bestea erabiliz.

**LAUGARRENA:**  
**KORPORAZIOA OSATU IZANAREN AITORPENA**

Horrenbestez, hautatutako bost udal hautetsietatik, bostak bertaratu direla ikusirik, Mahaiak Udalbatza eratutzat jotzen du, honako udalbatzar-kideekin:

1. Oihana Amundarain Zubillaga.
2. Maite Bizkarrondo Arzallus.
3. Juan Ramon Gurrutxaga Lasa.
4. Olaia Garaioa Moriones.
5. Pello Iriarte Irisarri

**BOSTGARRENA:**  
**ALKATEA AUKERATZEA**

Ondoren Alkatearen hautaketari ekiten diote bildutakoek.

Prozedura aipatu 5/85 Lege Organikoko 196. artikuluan xedatutako orokorra da:

Idazkariak zerrendaburuari hautagaitza mantentzen duen edo baztertzen duen galdetu dio, erantzuna hauxe izan delarik:

- Oihana Amundarain Zubillaga Andreak mantendu egiten du.

Dagokion eran, isileko bozketa eginik, honako emaitza gertatu da:

- Emandako botoak: 5
- Baliozko botoak: 5
- Boto txuriak: 0
- Baliogabekoak: 0



Emandako baliozko botoen arabera honako emaitza gertatzen da:

- Oihana Amundarain Zubillaga Andrea: Aldeko botoak : 5

Oihana Amundarain Zubillaga Andrea EH BILDUko ordezkari den zinegotzia alkatea aukeratua izan dela ikusirik, ELDUAINgo Alkate-Lehendakaria izendatzen da.

**SEIGARREN PUNTUA:**

**ALKATEAREN ZIN EDO HITZ EMATEA ETA JABETZA HARTZEA:**

Kargua hartu aurretik ordea, alkateak Konstituzioaren zina edo hitzematea egin behar dute.

Jurisprudentzia honela agertu da horren inguruan. Auzitegi Konstituzionalaren (2. Sala) 8/1985 Sententziak, urtarrilaren 25ekoak, «herri subiranoaren aurrean Zinegotzi karguaren betebeharrak fideltasun osoz betetzea» agindu zuen Zinegotziaren aurrean, Konstituzionalak eskatutako babesa eman zion, Udaleko zinegotzi karguaren jabetza hartzea aitortuz.

Auzitegi Konstituzionalak (Osoko Bilkura) ekainaren 21eko 119/1990 Sententzian adierazi zuenez, «Legeak hala behartuta, bai, hitzematen dut» formula erabili zuten Zinegotziek Zinegotzi izaera osoa hartu zuten Konstituzioari men egiteko agindua formula horren bidez eginda.

Ondoren, Oihana Amundarain Zubillaga Andreak adierazten du onartu egiten duela ELDUAINgo Udaleko alkatea kargua eta, aipatutako formula bat edo bestea erabiliz, eta karguaren jabetza hartzen du.

Bilera honen helburua beteta, amaitzea erabaki zuen, hamarrak eta hogeita minutu zirenean eta nik idazkariak gertatutakoa agerian uzten du.

Elduainen, 2023ko ekainaren 19an.

O.E.

Alkateak,

Oihana Amundarain Zubillaga,

Udaleko idazkari-kontu-hartzailea,

Maria Pilar Garmendia Miguel



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

20220617Akta-AkatsZuzenketa

**CSV/EKS:**

SINAd5f9d33-70c9-4e27-9b1e-3f43fa3a2ae9